

# EUSKARA GARA



Euskarak eraso asko jasan ditu historian zehar; horietako batzuk oso gogorak izan dira: debekuak, zapalketak, zentsurak... Baina, hala ere, jendearen itxaropen eta gogoia ez ziren itzali, herriaren arnasa ez zen iraungi, jendeak euskaraz hitz egiten jarraitu zuen, herritarrek arnasten jarraitu zuten. Orain, debekurik ez dugula ez ditzagun beraien esfortzuen fruituak zapuztu. Euskara desagertzea nahi al duzu?

Euskara. Herriaren arima, protagonista. Kolpez kolpe, debekuz debeku, horren aurrean, euskara, zutik eta erresistentzia sendoarekin nabarmendu izan da, hori dela eta, ahalegin guztia zaborretara botatzearen aurka egon beharko ginateke. Ez al dakizu euskara dela euskaldun egiten gaituena? Zer gara euskararik gabe? Euskara geure zainetatik igarotzen den bizimodua da, ez soilik hizkuntza, alegia. Geure bizimodua zaindu beharra dago, eta azkenaldi honetan, zoritxarrez, gaur egungo gazteentzat, euskarari hautsa dario.

Bada garaia hautsak harrotzeko. Euskaldunok bizi garen herri harro honetako iparra da euskara; gure altxorra eta izatea. Hizkuntzak guri eta guk hizkuntzari ematen diogu arnasa eta izatea. Haur, gazte, heldu, ahoskera zahar zein berri, irrintzi zahar eta aho berri, milaka gogo baturik, gure hizkuntzak har dezan arnas. Ez dezagun gure herria arnasik, irrintzirik, irrikarik gabe utzi; zer izango litzateke, bada, euskaldunon herria euskaldun egiten gaituen hori gabe? Zer litzateke Euskal Herria euskaldunik gabe?

Euskara da euskaldun egiten gaituena. Euskaldunok, dakigunok, euskaraz mintzatuko bagina, emango genioke euskarari arnasa eta bizia; eta euskaraz bizi nahi duen orori, hasteko eta irrikaz jarraitzeko aukera; euskara ginelako, euskara garelako eta euskara izango garelako.

Euskara gara eta izango gara!

DBH 2.C

